

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA IRUDI POLITIKA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA
Komunikazio eta Irudi Departamentua
Erregina Erregeordea kalea 8, 3.
20.003, Donostia / San Sebastián

TEL. 943 481161

victoriaeugenia_imagen@donostia.eus
www.victoriaeugenia.eus

DESKRIBAPEN OROKORRA ETA HELBURUA

Arautegi hau sortu izanaren helburua da, filmazio, grabazio, argazki-erreportaje edo Victoria Eugenia antzokiaren barne- zein kanpo-irudiaz baliatzen den beste edozein jardueratan, Antzokiaren irudia babestea eta goraiatzea.

Dokumentu honen helburu orokorrak ondorengoak dira:

- Victoria Eugenia antzokiaren eraikina, kokalekua, edukia, apainketa eta ingurua babestea.
- Antzokiaren irudi publikoa eta izen ona babestea eta bultzatzea.
- Filmazioak, grabazioak, argazki-erreportajeak edo Antzokiaren irudiaz baliatzen diren beste edozein jarduerak enpresa interesdunarentzat zein Victoria Eugenia Antzokiarentzat ahalik eta eraginkortasun handinez egiten direla bermatzea.

KLAUSULA OROKORRA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN izenaren eta irudiaren gaineko jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubide guztiak erreserbatu dira, baita edukiei dagozkienak ere. Horiek tituludunaren baimenik gabe edozein bitartekoren bidez erabiltzea edo erreproduzitzea debekatuta dago. Era berean, ohartarazten da indarreko legedi zibilak eta penalak eskusiba-eskubide horiek urratzea zigortzen dutela.

Antzokiaren barruan egindako argazkiak eta grabazioak erabilera pribaturako baino ez dira baimenduko eta, beraz, ezin izango dira inolaz ere jendarteratu edo ustiatu.

Baldintza jakin batzuetan, Victoria Eugenia Antzokiak bere irudi eta izenaren erabilera baimendu dezake. Antzokiak erabilera hori baimendu eta ikuskatuko du beti eta kasu bakoitzean ezarriko den tarifa ordaindu beharko da, Antzokiaren irudia behar bezala erabiltzen dela eta haren helburuak betetzen direla ziurtatzeko.

ARAUAK ETA BALDINTZAK

Aurreko atalean aipatutako helburu nagusiak behar bezala betetzeko, ondorengo arauak eta baldintzak ezarri dira.

Jakinarazpena.

Gutxienez **15 egun aurretik**, Victoria Eugenia Antzokiko Komunikazio eta Irudi Departamentuak, Antzokiaren irudia erabiltzeko baimen-eskaera jaso beharko du. Horretarako, web-orrialdeko atal honetan bertan edo 943 481161 telefonoaren bidez eskuratu daitekeen [eskabide-formularioa](#) bete behar da.

Kokalekuak

Filmazioak, grabazioak, argazki-erreportajeak edo Antzokiaren irudiaz baliatzen diren beste edozein jarduerak aurrera eramateko baimen-eskaeran, erabiliko diren **kokalekuak edo eraikineko guneak zehaztu** beharko dira.

- ANTZOKIA
- ERAIKINAREN KANPOALDEA
- ANTZOKIKO FATXADA/AK
- AGERTOKIA
- ARETO NAGUSIA
- KLUB ARETOA
- SARRERA ETA FOYER ARETOA
- TXINA ARETOA
- DANTZA ARETOA
- BESTEAK

Baimenaren baliozkotasuna

Mailegatutako irudi bat erabiltzeko baimena, adierazitako **erabilera espezifikorako baino ez** du balio izango. Bestela erabili nahiko balitz, beste baimen bat eskatu beharko litzateke.

Eraikinaren, guneen eta aretoen tratamendua

Jarduerarako muntaiaren bat egitea beharko balitz, horrek ezin izango ditu Antzokiko instalazioak kaltetu. Victoria Eugenia antzokiko apainketarekin eta inguruko eremuekin kontu handia izan behar da. Ez barruko ez kanpoko gainazaletan, ezin izango da zinta, itsasgarri, iltze, txintxeta zein beste objektu edo materialik jarri, aurretik horretarako baimena eman ez bada. Antzokiaren ondasunen bat kentzea, aldatzea edo lekualdatzea beharrezkoa izango balitz, eskaeran zehaztu beharko da, horretarako baimen espezifikoa lortzeko.

Enpresa interesdunaren esku egongo da filmazioa, argazki-saioa, etab. egiteko beharrezkoa duen ekipamendua lortzea, hala nola, argiak, kable luzagarriak, etab. Antzokiak ez du inongo erantzukizunik bere gain hartuko, ekipamendu hori Antzokiaren barruan eta filmazioaren aurretik, bitartean edo ondoren kaltetu edo galduko balitz.

Azken zereginak

Jarduera amaitutakoan, enpresa interesdunak bermatu beharko du Antzokiko ondasun guztiak bere lekuan utzi dituela, zabor guztia jaso duela eta, lekua, funtzionatzeko ohiko baldintzetan dagoela. Antzokiko pertsonalak, jarduerarako erabilitako instalazioak ikuskatzean, kalte edo galeraren bat antzemango balu, Donostia Kulturak erreklamazio bat aurkeztuko du, horren kalte-ordaina jasotzeko.

Irudien aldaketa digitala

Victoria Eugenia antzokian hartutako irudi edo argazkietan aldaketa digitalak egiten badira ere, irudi-politika bera bete beharko dute.

Copyrighta

Filmatzeko, grabatzeko edo argazkiak ateratzeko baimenak ez du esan nahi Victoria Eugenia Antzokiak automatikoki copyright-baimena bermatzen duenik.

Onartzeko eskubidea

Victoria Eugenia Antzokiak eskubidea izango du bere ustez Antzokiaren irudiarekin, ezaugarriekin, programazio-lerroarekin eta espazioen lagapen espezifikoarekin bat ez datozen proiektuak eta lanak ez onartzeko. Halaber, ez du zertan baimendu beharrik izango argazki- edo bideo-irudirik, ezta ezein kopia, titulu edo off-eko ahotsik, irudiak edota kopiak inprimatu, argitaratu edo telebistan eman aurretik.

Jardueraren ezeztapena

Victoria Eugenia Antzokiak edozein erreserba ezeztatzeko eskubidea izango du, segurtasun-arrazoiengatik, filmazioaren baldintzak ez betetzeagatik edo edozein ustekaberengatik

Baimenaren baldintzak

Zabalduko diren argazki eta irudi guztietan, ondorengo legenda aipatu beharko da espresuki: "Victoria Eugenia Antzokia, Donostia - San Sebastián" eta dagozkion esker oneko hitzak.

Lana egin ondorengo sei hilabeteetan, argazki-erreportajearen lagin bat edo irudien laburpen bat entregatu beharko zaio Komunikazio eta Irudi Departamentuari, bere artxiboan gorde dezan:

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA
Komunikazio eta Irudi Departamentua
Ana Basterretxea
Erregina Erregeordea kalea 8, 3.
20.003 Donostia / San Sebastián

IRUDIAREN ERABILPENAREN TARIFAK *

Victoria Eugenia Antzokiaren irudiari erabilera kolektiboa edo komertziala ematen dioten argazki-erreportajeengatik eta filmazioengatik, ondoren azaltzen diren tarifak ordaindu behar dira:

Filmazioak

Film dokumentalen filmazioak

(produkzio-sozietateak edo telebista)

Egun osoko prezioa —09:00etatik 17:00etara— edo egun erdikoa —4 ordu— ordaindu daiteke. Tarifa: **800 € eguneko**

Fikziozko filmen eta bideo musikalen filmazioak

Egun osoko prezioa —09:00etatik 17:00etara— edo egun erdikoa —4 ordu— ordaindu daiteke.

- Tarifa minimoa (egokitzapen partikularrik gabekoa): **5.500 € eguneko**
- Ohiko tarifa (egokitzapenekin: ekipamenduak lekualdatzea, Antzokiko pertsonalaren laguntza, etab.): **8.800 € eguneko**
- Salbuespenezko tarifa (09:00etatik 17:00etara doan ordutegitik kanpokoa): **17.600 € eguneko**

Publizitate-produkzioak

Egun osoko prezioa —09:00etatik 17:00etara— edo egun erdikoa —4 ordu— ordaindu daiteke. Tarifa bakarra, argazkiak edo filmak: **15.000 € eguneko**

Multimedia-produktuen edizioa

Egindako produktu bakoitzeko prezioa (DVDak, CD-ROMak, etab.) Tarifa: **3.000 €**

Argazki erreportajeak

Publizitate-produkzioak

Egun osoko prezioa —09:00etatik 17:00etara— edo egun erdikoa —4 ordu— ordaindu daiteke. Tarifa bakarra, argazkiak edo filmak: **15.000 € eguneko**

Multimedia-produktuen edizioa

Egindako produktu bakoitzeko prezioa (DVDak, CD-ROMak, etab.) Tarifa: **3.000 €**

*** Tarifak ordaintzetik libratzea**

Argazkiak eta filmazioak egiteko eskubideen tarifak ez ordaintzea lor daiteke, betiere aurretik eskaera egin eta baimena lortu bada:

- Victoria Eugenia Antzokiaren promozio orokorrerako jarduerak. Antzokiaren irudia, programazioa eta bertan antolatzen diren diziplina anitzeko erakusketak eta jarduerak sustatzeko helburua duten prentsako sustapen-erreportajeak (argazkiak/telebista).
- Hiriko eskaintza kulturalarekin, ongintza-jardurekin edo hezkuntza- eta didaktika-arloarekin lotutako proiektu ez komertzialak